



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2019ko AZAROAREN 26an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2019ko azaroaren 26an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez

ZINEGOTZIAK :  
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga  
Unai Sorarrain Urruzola  
Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen du: Shrabani Aranzabe Pita eta Concepcion Soria Legua

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespenak.**
  - ✓ 2019ko urriaren 15ean egindako ez ohiko bilkuraren akta.
  - ✓ 2019ko urriaren 29an egindako ohiko bilkuraren akta.
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Oporrak bakean diru-laguntzaren eta dagokion hitzarmenaren onespenaren aldaketa, hala bada.**
5. **Udal garbitzailearen ordezkapenerako lanpoltsa osatzeko deialdiaren onespena, hala bada.**
6. **Udal lanpostu funtzioen onespena, hala bada.**
7. **Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gaztematika programara atxikitzea.**
8. **Beste batzuk.**
9. **Erregu, galdera eta mozioak.**

**-2019ko euskararen nazioarteko egunerako adierazpenaren azterketa.**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**-Azaroaren 25eko adierazpen instituzionalaren azterketa. "Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna."**

.../...

### **LEHEN PUNTUA**

#### **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- ❖ 2019ko urriaren 15eko ez ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- ❖ 2019ko urriaren 29ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 144/2019tik 165/2019ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

FONTANERIA ANTZIETA	170,25
FONTANERIA ANTZIETA	577,78
NATURTZAINDIA	13.000,00
ARANZADI	2.000,00
MOVISTAR	179,08
MOVISTAR	55,64
PAULO AZKUE	91,74
NORTEGAS	10,55
NORTEGAS	25,29
NORTEGAS	28,42
CORREOS	215,61



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

SOLRED	62,59
ARGITU	198,51
ASUN MURUA	700,00
ASUN MURUA	600,00
M.URANGA	178,60
ANTONIO ELOSEGUI	147,92
MONTTE	1.566,79
MOVISTAR	180,09
MOVISTAR	54,31
ULAHI	569,22
SOLRED	122,72
ACSOL	438,03
ACSOL	76,00
ACSOL	47,90
ACSOL	66,60
ACSOL	106,56
ACSOL	43,39
ACSOL	67,46
ACSOL	31,71
ACSOL	104,35
ACSOL	198,71
EDURNE BENGOA	188,66
EUSKALTEL	108,66
JOSE JULIAN PEREZ	2.676,91
CORREOS	4,93
IBERDROLA	47,88
BIDATEK	2.795,10
PAULO AZKUE	115,12
DIONISIO ORMAZABAL	35,70
D.S.D	60,00
EUSKALTEL	108,66
ARGITU	198,51
ARRASATEKO UDALA	278,19
MEN OF ROCK	850,00
RENTOKIL	492,47
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	303,67
TOLOMENDI	543,45



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **30.723,73** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **OPORRAK BAKEAN DIRU-LAGUNTZAREN ETA DAGOKION HITZARMENAREN ONESPENAREN ALDAKETA, HALA BADA**

Ikusirik 2019ko uztailaren 4ean ospatutako Udalbatzarrean, Tolosako Udalarekin Oporrak bakean programan parte hartzeko onespena eman zitzaiola. Horretarako 1.900,00 euro aurreikusi zirelarik.

Ikusirik "Tolosaldea Sahararekin" elkarteak, Oporrak bakean programan ere parte hartzen dutela, haurren bidaiaren gastuak eurek kudeatzen dutelarik.

Ikusirik, aurten, Alkizako familietara ez dela umerik etorri.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

## ERABAKITZEN DU:

LEHENA: "Tolosaldea Sahararekin" elkarteari, Oporrak bakean programaren barnean Tolosaldera datozen haurren bidai gastuekin laguntzeko 800 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Tolosako Udalari, Oporrak bakean programarako 1.100 eurotako diru-laguntza ematea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosako Udalari eta "Tolosaldea Sahararekin" elkarteari ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **UDAL GARBITZAILEAREN ORDEZKAPENERAKO LANPOLTSA OSATZEKO DEIALDIAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusita udal garbitzailearen ordezkapenak egiteko aurreko urteetan lan-poltsa bat osatzen dela.

Ikusita, aurten ere Alkizako Udalak interesa duela, udal garbitzailearen ordezkapenak gauzatzeko lan-poltsa bat osatzea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Udal garbitzailearen ordezkapenak egiteko lan-poltsa bat osatzeko deialdia egiteko onespena ematea.

**SEIGARREN PUNTUA**  
**UDAL LANPOSTU FUNTZIOEN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusita, udal lanpostu desberdinen funtzioak finkatu direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Dokumentuaren eranskinetan jasotzen diren Udal Lanpostuen Zerrendan xedaturiko lanpostuen funtzio eta zereginak onartzea.

BIGARRENA.- Hartutako ebazpena, Iragarki Taulan, eta Alkizako udaleko web orrian argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Espedientea informazio publikoan jartzea eta interesatuei entzunaldia ematea hamabost laneguneko epean, iragarkia jendaurrean jartzen den egunetik kontatzen hasita. Interesatuek espedientea aztertu eta alegazio edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte aipaturiko epean.

Alegaziorik aurkeztu ezean, Udal lanpostuen zerrendan xedaturiko lanpostuen funtzio eta zereginak izeneko dokumentua behin betikoz onartutzat emango da.

**ZAZPIGARREN PUNTUA**  
**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN GAZTEMATIKA PROGRAMARA ATXIKITZEA**

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

BAKARRA.- Atxekimendua ematea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari, hau da, Gaztematikari. Ondorengo testuaren arabera:



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

### **“Atxikimendua Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari, Gaztematikari.**

Botere publikoek haur, nerabe eta gazteei dagokienez duten ardura berezia ez da haiek babestera mugatzen; haur eta gazteen sustapena sustatzea ere badute xede. Haur, nerabe eta gazteen inguruko berariazko politika publikoetan, babesa eta sustapena alderdi osagarri eta ezinbestekoak dira; izan ere, pertsonen bizitzakoaldi horien berezko zaurgarritasunaz arduratzea bezain funtsezkoa da gizakien bizitzan oinarritutako diren etapa horietan haien garapen osoa bultzatzea. Haur eta gazteen sustapenerako politikek, haien babeserako politikekin batera, haur, nerabe eta gazteentzako berariazko jardueren esparru bat osatzen dute eta, aldi berean, haur, nerabe eta gazteen eskubideekiko ardura areago nabarmentzen dute eta eraginkorrago egiten, hala politika publiko guztietan nola gizarte bizitzan.

Euskal Autonomia Erkidegoak oraindik gazteriari buruzko lege orokor edo globalik ez badu ere (onartzeko bidean dago), ezin da bazter utzi arlo horretan izan den jardura arauemaile eta planifikatzailea, besteak beste gazte planetan jasoa. Arautze eta partaidetza jardura hori lagungarria izan da haur eta gazteen sustapeneraren jarduketara esparrua garatu, moldatu eta ezagutzera emateko; horren fruitu gisa nabarmendu daitezke, adibidez, Euskadiko Kontseiluaren 6/1986 Legea eta Kultura sailburuaren 1999ko abenduaren 10eko Agindua, Gazteen Euskal Behatokiari buruzkoa.

Hain zuzen ere, azken hogeita hamar urteetan Gipuzkoako gizarte zibilak eta erakunde publikoek ibilbide nabarmena egin dute haur eta gazteen sustapenean. Ibilbide horrek ardura publikoa eta lankidetzazko partaidetza baliatzeko eredu bat ekarri du, hiru etapak, haurtzarora, nerabezarora eta gazteria, *continuum* gisa hartzen dituenak. Haur eta gazteen sustapenerako politika sektoreen arteko koordinazioa bultzatu eta zeharkako eragina izan nahi duen arlo gisa eratu da haur, nerabe eta gazteekin zuzenean esku hartzeko zerbitzu propioak dituenak, haur eta gazteen partaidetza sustatuz politika sektorial guztietan eta gizarte bizitzan haur, nerabe eta gazteekin adeitsua edo haien aldekoa izango den ikuspegi bat sortzeko.

Gertuko udalen ardurapeko zerbitzu eta jardueren aldeko apustua egiten jarraitu dugu, bai eta koordinazio eta laguntza lanetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtzioa egituratzen eta indartzen ere, udalaz gaindi eta lurralde mailan. Apustu horri esker, 2009an Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea, Gaztematika deitua, sortu zen. Sare horrek, hainbat urtez martxan egon eta hobetuz eta prozesu eta aktibo baliotsuak sortuz jardun ondoren, udalen eta aldundiaren arteko lankidetzak hitzarmenak oinarri harturik, Gipuzkoako biztanleria eta lurralde ia osoa hartzen du, eta ehun zerbitzu egonkor baino gehiago ditu martxan.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ibilbide hori eginda, gaur egun ezinbestekoa da sare hori juridikoki berrestea, mantentzea eta are sakontzea, jardunbide egokiak trukatzeko eta arlo horretan zailtasun edo gabezia gehien dituzten udalei laguntza instituzionala emateko ez ezik, Gipuzkoako Lurralde Historikoan partaidetza eraginkorra sendotzeko topagune eta proposamenen iturri izan dadin, jardunbide egokiak partekatu ahal izateko sare eta esparruak eraikiz, sinergiak bilatuz eta gazteen sustapenerako prozesuak berrelikatuz, modu horretan sorkuntza partekatuaren eta lankidetzazko gobernantzaren alde eginez. Foru dekretu honek, beraz, aitorpen juridikoa ematen dio sareari, eta, horrekin batera, baita merezi duen bultzada ere.

Horren ondorioz, 2019ko apirilaren 16an, elaborazio eta kontraste prozesu zaindu baten ondoren, besteen artean EUDELein, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarea sortzeari buruzko Dekretua onartu zen. Onarpen honekin Sareak aintzatespen juridikoa ematen zitzaioan eta, bide batez, merezi duen bultzada.

Hain zuzen, Dekretu honen 12. artikuluan, Udalak Sareari atxikitzeari buruz ondorengoa esaten da:

*12. artikulua. Udalak eta gainerako tokiko erakundeak Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari atxikitzea.*

- 1. Udalen atxikimendua sarera, honi buruzko berariazko udal akordioaren bidez gauzatuko da.*
- 2. Sareari atxikitzeak gizonen eta emakumeen arteko berdintasun ikuspegia txertatzea dakar berekin, eta konpromiso hauek betetzea:*
  - a) Aktiboki parte hartzea Sareko organo eta egituretan esleitutako pertsonen bitartez, hala arlo politikoan nola teknikoan.
  - b) Proposamen eta ekimenen bidez Sarearen funtzionamendua bultzatzea.
  - c) Sareko organo edo egitura eskudunen bidez Foru Aldundiak tokiko erakundearen alde haur eta gazteen sustapenaren arloan bideratzen dituen diru-laguntza lerroak banatzeko irizpideak zehazteko eta ezartzeko prozesuetan parte hartzea eta erabakiak hartzea.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- d) Haur eta gazteen sustapenerako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta bestelako jarduera hezitzaile batzuk proposatzea, Sarean eskumena duten organo edo egiturek eztabaidatu ditzaten eta erabakiak har ditzaten.
- e) Haur eta gazteen sustapena errazteko gida metodologikoak edo bestelako edozein bitarteko edo tresna proposatzea, eta batez ere sustapen planen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
- f) Sareari ezagutzera ematea haur eta gazteen sustapenaren arloan martxan jarri diren jardunbide egokiak, parte hartzen duten erakundeek ezagutza aberastu dezaketenak eta haur eta gazteen sustapenerako foru edo udal politikak –eta gainerako tokiko erakundeek– hobetu ditzaketenak.
- g) Sarearen aurrekontuak ezagutzea eta, hala badagokio, haien inguruan erabakiak hartzea, horretarako eskumena duten organo edo egituren bidez.
- h) Foru aldundiak udalerriei eta gainerako tokiko erakundeei laguntza tekniko eta lankidetzak eskaintzeko aurrera eramaten dituen prozesuetan laguntzea, arazoak edo konpondu gabeko auziak behar bezala identifikatuz eta haur eta gazteen sustapenerako tokiko politikak hobetzea xede duten arauak eta ordenantza ereduak, proposatutako gida metodologikoak eta Sarean bultzatzen den bestelako edozein ekimen sustatuz.
- i) Sarea dinamizatzea dauden egituren bitartez, eta, beharrezkoa balitz, Foro Teknikoak koordinatzea.

Gure udalaren kasuan, aipatutako Sarean 2009tik hartu du parte, eta denboraldi horretan, parte-hartzea, nagusiki, urtero hitzarmenak sinatuz gauzatu da. Bestalde, herri txikietak teknikariak hilean behin egiten duten bileran parte hartu ohi du udal teknikariak.

Horren ondorioz gure entitatea, denboraldi horretan, Gaztematika Sarearekin lankidetzan aritu da, eta Sarea osatzen duten entitate desberdinek egiten duten lanaren onurak jaso ditu: Erreferentziazko markoa, eztabaidarako eta elkarrizketarako hainbat gune, baliabide, gaitasun eta prozesu bateratuak, aholkularitza tekniko eta bide-laguntza, lurralde mailako plan komun bat, arloari buruzko ezagutza, jakintza eta





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

prestakuntza, diru-laguntzak, lurralde mailako programak, proiektuak eta kanpainak,  
...

Horrenbestez, gure udalak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sarearekin bat egiteko xedez, hori arautzen duen Dekretuko 12. artikulua ezarritakoaren arabera, osoko batzarraren erabakimenera jarriko da dagokion atxikimendu erabakia hartzeko.”

## **ZORTZIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

### **8.1. EDATEKO UR DEPOSITOEN GARBIKETA EGITEKO ZERBITZUAREN ESLEIPENA, HALA BADA**

Alkizako Udalak beharrezkoa ikusten du edateko ur deposituen garbiketa egitea, Osasun sailak horrela eskatuta.

Ikusirik, Alkizako Udalak ez dituela baliabide pertsonal eta materialik lan hauek egiteko. Horregatik IRAGAZ WATIN S.A. enpresari aurrekontu bat eskatu zaio.

Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko kontratu legeko 118 artikulua arabera kontratu txiki baten aurrean gaude. Zerbitzu kontratu txiki baten aurrean.

*Artículo 118. Expediente de contratación en contratos menores.*

*1. Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 229 en relación con las obras, servicios y suministros centralizados en el ámbito estatal.*

*En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá el informe del órgano de contratación motivando la necesidad del contrato. Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que las normas de desarrollo de esta Ley establezcan.*

*2. En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando normas específicas así lo requieran. Deberá igualmente solicitarse el informe de las oficinas o unidades de*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*supervisión a que se refiere el artículo 235 cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.*

*3. En el expediente se justificará que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación, y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individual o conjuntamente superen la cifra que consta en el apartado primero de este artículo. El órgano de contratación comprobará el cumplimiento de dicha regla. Quedan excluidos los supuestos encuadrados en el artículo 168.a).2.º*

*4. Los contratos menores se publicarán en la forma prevista en el artículo 63.4.*

Zerbitzu kontratu txiki bat bezala hartu behar da, 15.000 € azpitik dagoelako eta bestalde, Alkatetzaren eskuduntza ere bada, gastua 6.000,00€ azpitik ere dagoelako.

Bestalde adierazi behar dugu kontratuaren xedea ez dugula aldatzen kontratazio administratiboko arau orokorrak edo prozedurak ekiditeko.

IRAGAZ WATIN S.A. enpresarekin, Alkizako Udalak 2019. urtean zehar ez du 15.000€ko zerbitzu kontratuen urteko muga gainditu.

Beraz, Toki jaurbidearen oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 legeak eta Azaroaren 8ko 9/2017 legeak (Sektore Publikoko Kontratazio arautzen duena) ematen dizkidan eskuduntzaz baliatuaz, ondorengo ERABAKIA hartzen dut:

LEHENA: IRAGAZ WATIN S.A. enpresari Alkizako edateko ur deposten garbiketa zerbitzuaren kontratua esleitzea ordua 130,00€ eskulana (gutxi gora behera goiz bat beharko dute) + garbigailuaren errendamendua 26,00euro (BEZA kanpo), 210.153.04.01 kontu sailaren kontura "Azpiegitura eta zerbitzu gastuak".

BIGARRENA: Dekretu honen berri hurrengo Udalbatza arruntean ematea.

## **8.2.GALTZAUNDI EUSKERA TALDEAK AURKEZTURIKO FAKTURAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusita Galtzaundi Euskera taldeak aurkezturiko G19-000029faktura, Tolosaldean Euskaraldiaren inpaktua eta izandako ondorioen ikerketa eta azterketa dela lanak egiteagatik. Bere zenbatekoa Alkizaren kasuan 92,00 euro izan direlarik.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Galtzaundik aurkezturiko G19-000029 faktura onestea, eta 92 eurotako ordainketa egin dadila agintzea.

BIGARRENA: 92,00 eurotako gastua onestea.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**  
**ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

**9.1. 2019KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENAREN AZTERKETA**

Ikusirik, Alkate-Lehendakari jaunak aurkeztu duela 2019ko euskararen nazioarteko egunerako adierazpenaren testua, non ondorengo dioen:

**“2019KO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNERAKO ADIERAZPENA**

***Bide berriak, modu berriak***

***Ongi etorri etorkizunera!***

*Jauzika dator euskara. Jauzika mendez mende. Jauzika egunez egun. Bihotzetik bihotzera jauzika. Eta, batez ere, ezpainez ezpain jauzika.*

*Bere eguna du gaur euskarak, Nazioarteko Eguna hain zuzen ere. Baina ongi asko dakigu euskal herritarrok eta euskal hiztunok gaur ospatzen duguna ez dela egunaren mugetara errenditzen. Jauzi egiten du euskarak egunaren mugez gaindi ere. Jauzi egiten du euskarak muga guztiez gaindi, gure ahoan bizi-bizi, gure belarrietan zernahitarako prest beti. Noranahiko euskara gurea, denona.*

*Zer genuke, bestela, gaur ospatzeko?*

*Bide luzea egina du euskarak, eta harekin batera euskal hiztunok eta euskaltzaleok, etorkizuna irabazteko etengabeko ahaleginean. Bide luzea du egina euskal gizarteak euskara plaza guztietara duintasun osoz eramateko. Eta asko lortu da. Jardunak berak erakutsi digu, erakusten digu egunero, ezinbestekoa dela bide horiek, gauzak egiteko moduak, etengabe eguneratzea, eraberritzea, irudimenez biziagotzea. Eta argi erakusten ari gara euskalgintzan*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*ari garen guztiok prest gaudela, eta gogotsu, irakaspena barneratzeko eta praktikan mamitzeko.*

*Jarduerak adostu ditugu. Diagnostikoak hurbildu ditugu. Ekimenak josi ditugu elkarrekin. Elkarrekin ebaluatu dugu egindakoa. Elkarrekin hobetuko dugu hobetu beharrekoa.*

*Eta gizarteak erantzun sendoa eman du, onetsiz euskararen erabilera era iraunkor eta argian handiagotzeko estrategia eta molde berriak.*

*Badugu, bai, zer ospaturik aurtengo Euskararen Nazioarteko Egun honetan ere.*

*Ezagutzen ez genuen modu batean aktibatu zituen iazko gizarte-ariketa arrakastatsuak euskal hiztunak, neurri batekoak nahiz besteak. Aktibatu zituen, baita ere, herri aginteak eta askotariko gizarte-erakundeak, ikuspegi berri batetik. Eta, batez ere, estrategiak eta diskurtsoak eraberritzeko joera eta prestasuna aktibatu zituen.*

*Aldekotasuna, horrela, konpromiso eragingarri eta praktikoa bihurtzeko bidean jarri zen.*

*Badator, hurbileko ostertzean, ekimen haren jarraipena. Euskaraldia berraktibatuko dugu, berriz ere denon arteko adostasun eta lankidetzan, eta hurrengo urteko Euskararen Nazioarteko Egunak izango du, ezinbestez, toki propioa ariketa sozial erraldoi horren ingurumarian.*

*Ez da, baina, horretara mugatzen euskararen erabilera areagotzeko eginahala. Ezin inola ere horretara mugatu. Alorrez alor landu beharra dago erabileraren landarea, sendo haz dadin.*

*Ugari dira berariazko lanketa eskatzen duten alorrak, eta horien guztien artean bada bat gizarte-bizitzaren gune-gunean dagoena: ekonomia, lana eta kontsumoa biltzen dituen arloa, hain zuzen ere, gizartearen eta herritarron bizitzaren motore nagusia baita.*

*Arlo sozioekonomikoak eta euskararen erabilerak elkarri egin behar dioten ekarriaren garrantzia ez da gutariko inorentzat ezezaguna. Bai baitakigu ez dela hizkuntza normalkuntzarik lanaren, ekonomiaren eta kontsumoaren munduan erro sakonik ez duenik.*

*Sendoak dira, alor horretan ere, eragile nagusiak egiten ari diren urratsak. Eta horietan lehena, zalantzarik gabe, euskararen erabilera askotariko erakundeen izaeraren ezaugarrien artean txertatzea dago.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*Bide berriak, modu berriak, arlo sozioekonomikoan ere.*

*Estrategia berriak, beraz. Konpromiso berriak. Konpromisoari erantzuteko molde berriak. Praktika berriak.*

*Azken batean, aldekotasun eraldatzailea da gure gizartea, euskal hiztunok eta euskaltzaleok aktibatuz, bideratzen ari dena.*

*Bertan du euskarak etorkizuna.*

*Bide eta praktika berrietatik datorren etorkizuna.*

*Horregatik guztiagatik **Alkiza**ko udalak dei egiten die herritar guztiei abenduaren 3an gure herrian antolatu diren ekimenetan parte hartzera.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Alkate-Lehendakari jaunak aurkezturiko 2019ko euskararen nazioarteko egunerako adierazpena bere osotasunean onestea.

## **9.2. AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN AZTERKETA. “EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA”.**

Ikusirik, Alkate-Lehendakari jaunak aurkeztu duela 2019ko “Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna” adierazpenaren testua, non ondorengoa dioen:

### **AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA “EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA” *INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEI ERREPARAZIORAKO TOKIKO EKINTZAK***

Azaroaren 25a (Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna) dela-eta, indarkeria mota honen egitura-izaera nabarmentzen dugu, eta gure konpromisoa agertu nahi dugu emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzeko. Era berean, nazioarteko esparru juridikoarekin bat etorrira, berresten dugu beharrezkoa dela ekintzak proposatzea esku-hartzearen alor guztietan: **prebentzioa, hautematea, arreta, babesa,**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**koordinazioa** eta **justizia**, arreta berezia jarrita biktimei eta bizirik atera diren pertsonen **erreparazioa** ematean.

Biktimei erreparazioarako printzipioak berekin dakar biktimak eskubide-urraketa bizi aurreko egoerara lehengoratzeko beharrezkoak diren ekinzak martxan jartzea. Indarkeria matxistaren biktimen kasuan, xedetzat hartzen da biktimaren bizi-baldintzak funtsean hobetzea, urratutako eskubideengatik erreparazioa jasota eta eragindako minetik berrezarrita. Era berean, ahalduntze-prozesua bultzatu behar da, indarkeria-egoerari aurre egiteko gaitasuna eta autonomia indartu dezaten.

Tokiko gobernuek biktimei arreta eskaintzeko alorrean aitortuta dugun erantzukizuna eta eskumena gure gain hartzen dugu, gure herri eta hirietan indarkeria matxista jasaten duten emakumeengandik hurbilen gauden erakundeak garelako. Politikarien eta teknikarien bultzada koordinatuarekin, tokiko erakundeen esku-hartzea funtsezkoa da erreparatzeko prozesuan, komunitateko bizitza berrezartzen laguntzeko eta biktimei erreparazio publiko eta soziala emateko, indarkeria matxistaren biktimen eta bertatik bizirik atera diren pertsonen inguru hurbilenean.

Horren ildotik, Berdinsareako (Berdintasunaren aldeko eta emakumeekiko indarkeriaren aurkako Euskadiko udalen sarea) udaletako berdintasun-teknikarien lana oinarritzkoa eta balio handikoa da, udaletan ekintzarako orientazio eta irizpide komunak eskaintzeko, batez ere, udal txikienetan. Hain zuzen, erreparazioari dagokionez, Indarkeria matxistaren biktimei erreparazioarako tokiko ekintzen gida bat prestatzeko lanean ari dira, tokiko erakundeek indarkeria matxistaren biktimek ordaina jasotzeko duten eskubidea praktikan jarri eta zehaztu ahal izan dezaten, udal eskumenaren esparruan.

Alkizako udalak **konpromiso sendoa du indarkeria matxistaren modu guztiak desagerrarazten laguntzeko, honela jokatu duela:**

- Biktimen eskubideak arreta-prozesu osoaren erdigunean jarrita, euren beharrian eta eskariei entzunez eta arreta emanez.
- Erreparazioarako eta ahalduntzeko esku-hartze prozesu guztietan, kudeaketa eta azkartasuna bermatzeko lan eginez.
- Tartean sartutako erakunde guztiekin koordinatuz, arreta eta erreparazioarako baliabideak egituratzeko, indarkeria matxistaren biktimen egoera erabat lehengoratzeko dela eta urratutako eskubideak berrezarriko direla bermatzeko.
- Talde feministekin eta tokiko emakumeen elkarteekin modu estuan lankidetzan arituta, berdintasun-politikak eta ekintzak diseinatzeko,



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

biktimei eta bizirik atera diren pertsonen arreta eta erreparazioari dagokionez.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Alkate-Lehendakari jaunak aurkezturiko 2019ko “emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna” adierazpena bere osotasunean onestea.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*

IDAZKARIAK